



Zirkularra, Hezkuntza Berriztatzeko Zuzendariarena; honen bidez, deialdia egin zaie Haur Hezkuntza, Lehen Hezkuntza, Bigarren Hezkuntza eta Helduen Hezkuntzako Herri Ikastetxeei, 2007-2008 ikasturtean zehar “Ikas Komunitateak” deritzon Hezkuntza Berriztatzeko Proiektua burutzeko eska dezaten.

Euskal Eskola Publikoari buruzko Legeak ondoko xedea du, besteak beste: “*Elkarbizitza demokratikoa ahalbideratzen duten baloreetan oinarriturik ikasleen nortasuna askatasunean garatzea eta heziketa osatua bultzatzea, besteak beste, gaitasun eta jokaera kritikoa, berdintasuna, zuzentasuna, partaidetza, aniztasunarekiko eta kontzientzi askatasunarekiko begirunea, elkartasuna, gizartearekiko kezka, elkar eramankortasuna eta elkarrenganako begirunea, bai eta giza eskubideen aldeko jarrera ere, sustatuko dituela.*”.

Halaber, Legearen III. kapituluan, ikastetxeen pedagogi autonomiari buruzkoan, adierazienez, ikastetxeok “*hezkuntza-proiektua eta ikasketa-proiektua mamitzeko beharrezko erabakiak hartu ahal izango dituzte*”, eta 48. artikuluan dio Hezkuntza Berriztatzeko Proiektuek ikastetxeen pedagogi autonomia islatzen dutela.

Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak unibertsitateaz kanpoko ikastetxeetan Hezkuntza Berriztatzeko Proiektuak burutzea bultzatzen du, bai berariazko deialdiak eginez, bai ikastetxe horien irakaskuntza eta antolamenduko eginerak hobetuko dituzten aldaketak eragiteko jarduerak burutzea zuzenean proposatuz.

Argi dago gizartearen kohesiorako oinarriak finkatu behar direna, balore-hezkuntza, zeharkakotasuna, kultur artekotasuna, garapenerako hezkuntza eta bizikidetzaren eta bakerako hezkuntza eta gisa honetako gaiak landuko dituen hezkuntzako jarduketara aktiboa bultzatuz; horretarako guztirako, jakina, arlo horiek lantzeko proiektu berriztatzailak sustatu behar dira ikastetxeetan.

Ikas Komunitateak deritzon proiektuaren oinarria honako hau da: ume guztiek dutela kalitatezko hezkuntza inolako eragozpenik gabe jasotzeko eskubidea, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako ikasketak behar bezala burutzeko eta, ondorik, lanean hasi edo beste ikasketa batzuei ekiteko.

Helburu hori lortze aldera, industri aroko gizartearen jaraunsle diren eskolak alde batera utzi eta ***Ikas Komunitateak*** eraiki behar ditugu, zeren eta elkarteotan hainbat sektorek jarduten baitute batera: zuzendaritzako langileria, administrazio arloko langileria, zerbitzuko langileria, eta ikastetxeetako irakasleak, gizarte-hezitzaileak, aisialdiko monitoreak, familiak, elkarteak, enpresak, udalak...

EAeren menpeko herri ikastetxeek, nolabaiteko autonomia izan arren, ez dute nortasun juridikorik eta Administrazioan bertan daude integratuta; gauzak horrela, zeren eta Euskal Eskola Publikoari buruzko otsailaren 19ko 1/1993 Legearen 57. eta 54.2. artikuluetan xedaturik dagoena aplikatzearen ondorioz, ikastetxeek zuzkidura osagarriak jaso ahal izango dituzte EAeren Aurrekontu Orokorren pentzuan. Beraz, ikastetxeko hezkuntzako proiektuak eta urteko planak barne hartzen dituzten ***Hezkuntza Berriztatzeko Proiektuak, Ikas Komunitateak***, burutzeko diru-zuzkidura eskatzeko honako oinarri hauek ezartzen dira:



Esandakoaren arabera, ondoko argibide hauek ematen dira:

ARGIBIDEAK

Lehengoa.- Deialdiaren xedea

Haur Hezkuntza, Lehen Hezkuntza, Bigarren Hezkuntza eta Helduen Hezkuntzako Herri Ikastetxeei deialdia egitea, 2007-2008. ikasturtean zehar *Ikas Komunitateak* deritzon Berriztapen Proiektua burutzeko eskabidea aurkez dezaten, baldin eta zirkular honetan ezartzen diren xedea, ezaugarriak eta baldintzak betetzen badituzte.

Proiektuaren I. eta II. moduluak eska daitezke.

a) I. modulua: Sentsibilizazio Aldia eta Erabakia Hartzea.

Honetan datza I. modulua: Elkarteei buruzko proiektuaren gaineko prestakuntzan, eta proiektu hori ikastetxean aurrera eramanez ala ez eramanez erabakitzean gero.

Prestakuntza horretan 30 orduko ikastaroa izango da, Ikas Komunitateen proiektua ezagutzeko: oinarri teorikoak eta esperientzia praktikoak, ikastetxearen beraren errealitateari buruzko hausnarketaz gain.

Prestakuntza honek ez dakar berez Ikas Komunitateen proiektua aurrera eramateko konpromisorik; izan ere, aurrera egitea erabakitzen bada hartuko da konpromiso hori eta, honela bada, hurrengo ikasturtean II. Modulua eskatuko da.

b) II. modulua: proiektua gauzatzea.

Eskabidean adierazi behar dira Ikas Komunitateen proiektuaren barruan 2007-2008 ikasturtean gauzatuko diren jarduerak.

Bigarrena.- Proiektu kopurua

Zirkular honen bidez *Ikas Komunitateak* deritzen proiektu hauek garatzeko onets daitezkeen ikastetxeen gehienezko kopurua, alde batetik, **19**koa izango da, baldin eta aurreko urteetan Berriztapen Proiektua garatzen jardun badute (II. modulua), eta bestetik, **10**koa Berriztapen Proiektua hasten badute (I. modulua). Lehentasuna izango dute proiektua 2007-2008. ikasturtean hasten duten Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako eta Araba eta Gipuzkoako Haur Hezkuntza, Lehen Hezkuntzako herri ikastetxeek.

Hirugarrena.- Beharkizunak

Ondoko hauek dira zirkular honetan iragartzen den diru-zuzkidura jasotzeko beharkizunak:

I. modulua hasten duten ikastetxeek bete beharrekoak

a) Zirkular hau jaso aurretik ikastetxeko irakasleren batek GARATU barneko Ikas Komunitateei buruz, edo antzekoa, emaniko prestakuntza ikastaroa, edo Sentsibilizazio Aldia beste ikastetxe batean, eginda izatea. Baldintza hau ez dute bete behar honako ikastetxe hauek: Ikas Komunitate proiektua garatzen ari den beste ikastetxe batetik etorritako ikasle kopuru handia jasotzen duten Bigarren Hezkuntzako ikastetxeak; Haur eta Lehen Hezkuntzako ikastetxeak non ikasleak Ikas Komunitate proiektuko Bigarren Hezkuntzako ikastetxe batera joaten zaizkien.



- b) Haur eta Lehenengo Hezkuntza, DBH edo DBHko 1. Zikloko LZko irakasleen % 80k Ikas Komunitateak izeneko proiektuko prestakuntza edo Sentsibilizazio Aldian esku hartuko duten konpromisoa. Prestakuntza 30 orduko ikastaroa da, proiektua, bere oinarri teorikoak eta esperientzia praktikoak ezagutzeko; horretaz gain, ikastetxearen errealitateari buruzko gogoetak egingo dira.
- c) Proiektuan esku hartuko duten irakasleek prestakuntza/koordinazio-arloko emanaldiak egingo dituzten konpromisoa, Sentsibilizazio Aldia egin eta gero; emanaldi hauetan proiektua aurrera eramango den erabakiko da.
- d) Sentsibilizazio Aldia egitea Ordezkaritza-Organoren onestea.
- e) Sentsibilizazio Aldia egitea Irakasleen Klaustroak onestea.
- f) Proiektua garatzeko gizarte sektore guztien partaidetza izatea.
- g) Proiektua ikastetxeko urteko planean integratzea

II. modulua eskatzen duten ikastetxeek bete beharrekoak

- a) Ikas Komunitateak deritzon proiektuko I. edo II. Modulua zirkular honen aurreko deialdietan onetsi izana.
- b) Proiektuak jarraituko duela Ordezkaritza-Organoren onestea lehenengo urtea bada. Gainontzeko ikastetxeen kasuan, 2007-2008 ikasturterako proposatzen diren jardura berrien (baldin baleude) onespina.
- c) Proiektuak jarraituko duela Irakasleen Klaustroak onestea lehenengo urtea bada. Gainontzeko ikastetxeen kasuan, 2007-2008 ikasturterako proposatzen diren jardura berrien (baldin baleude) onespina.
- d) ikastetxearen konpromisoa, Ikas Komunitateen EAeko aholkularitza-taldearekin koordinatuko dela. Horretarako, gutxienez hiru bilera egingo dira ikasturtean zehar.
- e) Proiektua garatzeko gizarte sektore guztien partaidetza izatea.
- f) Proiektua ikastetxeko urteko planean, hezkuntzako proiektuan eta ikastetxeko curriculum-proiektuan integratzea.

Laugarrena.- Eskabideak eta dokumentazioa

1.- I. modulua hasten duten ikastetxeek aurkeztu behar duten dokumentazioa

- a) Zirkular honen I. eranskinean azaltzen den eredu estandarizatuari doitzen zaion eskabidea.
- b) Ikastetxeko irakasleen ziurtagiria, "Ikas Komunitateak" gaiari buruzko ikastaroa edo Sentsibilizazio Aldia egin dutela egiaztatzen duena.
- c) Ikastetxeko zuzendariaren ziurtagiria, proiektuari buruzko ikastaroan esku hartzen duten LZko irakasle kopuruari buruzkoa (III. eranskina). Honekin batera beste ziurtagiri bat ere aurkeztu beharko da, aholkularitza-taldeak 30 orduko prestakuntza emateko (egunak ere adierazi behar dira) ikastetxearekin duen konpromisoa erasotzen duena; halaber, ziurtagiri horretan 2007-2008. ikasturtean proiektua burutzen ari delarik hamabostero egingo den prestakuntza/koordinazioa ere islatuko da.



- d) Klaustroaren akta, zeinetan berariaz adieraziko baita arestion aipatu proiektuaren ezagutzen duela eta proiektu horrek ikastetxearen barne antolaketan izan ditzakeen eraginak bere gain hartzen dituela (IV. eranskina).
- e) Ikastetxearen Ordezkaritza-Organoren akta, zeinetan honakoak erasoko baitira: eskabidearekiko adostasuna, gizarte sektore guztien partaidetza, proiektua burutzeko hartu beharreko neurriak bideratzeko konpromisoa eta ikastetxeko urteko planean sartzea, baldin eta onartzen bada. (V. eranskina).
- f) Ikastetxearen zuzendariaren zinpeko aitortpena (VI. eranskina), ondokoa egiaztatuz:
 - 1) ikastetxeak ez duela jaso xede bera duen beste deialdi mota bati dagokion diru-zuzkidurarik.
 - 2) ikastetxea ez dagoela Euskal Autonomia Erkidegoko Herriogasuntza Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen testu bateratuaren 50. artikuluko 5. paragrafoak, Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legeak aldatuak, ezarritako arazoirenen baten eraginpean.

2.- II. modulua garatzen ari diren ikastetxeek aurkeztu behar duten dokumentazioa.

- a) Zirkular honen I. eranskinean azaltzen den eredu estandarizatuari doitzen zaion eskabidea.
- b) ***Ikas Komunitateak*** proiektuaren burutzapen eta hedapenari dagokionez, ikasturtean zehar garatuko den hezkuntzako jarduketaren laburpena (II. eranskina).
- c) Ikastetxeko zuzendariaren ziurtagiria (III. eranskina) ondokoa adieraziz:.,
 - 1) zein urtetatik garatzen ari den Berriztapen Proiektua ikastetxean
 - 2) Proiektua hezkuntzako proiektuan eta ikastetxeko curriculum-proiektuan integratuta dagoela edo integratuko dela II. modulua hastekotan.
- d) Ikastetxeko zuzendariaren ziurtagiria, proiektua, ikastetxeko hezkuntzako proiektuan eta curriculum-proiektuan sartuta dagoela, edo sartuko dela II. Modulua hasten bada, adierazten duena.
- e) Klaustroaren akta, zeinetan berariaz adieraziko baita arestion aipatu proiektua ezagutzen duela eta proiektu horrek ikastetxearen barne antolaketan izan ditzakeen eraginak bere gain hartzen dituela, eta ikastetxearen konpromisoa, proiektuaren EAeko aholkularitza-taldearekin koordinazioa egingo duela 2007-2008 ikasturtean, proiektua burutu bitartean (IV. eranskina).
- f) Ikastetxearen Ordezkaritza-Organoren akta, zeinetan honakoak erasoko baitira: eskabidearekiko adostasuna, proiektua burutzeko hartu beharreko neurriak bideratzeko konpromisoa eta ikastetxeko urteko planean sartzea, baldin eta onartzen bada. (V. eranskina).
- g) Ikastetxearen zuzendariaren zinpeko aitortpena (VI. eranskina), ondokoa egiaztatuz:
 - 1) ikastetxeak ez duela jaso xede bera duen beste deialdi mota bati dagokion diru-zuzkidurarik.



- 2) ikastetxea ez dagoela Euskal Autonomia Erkidegoko Herriogasuntza Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen testu bateratuaren 50. artikuluko 5. paragrafoak, Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legeak aldatuak, ezarritako arrazoiren baten eraginpean.

Bosgarrena.- Eskabideak aurkezteko epea eta tokia

- 1.- Eskabidea egiteko epea 2007ko ekainaren 23ra artekoa izango da (egun hau ere barne)
- 2.- Eskabideak Pedagogi Berriztapenerako Lurralde Burutzei zuzenduko zaizkie, eta Hezkuntza Saileko Lurralde Ordezkaritza egokietan aurkeztuko dira.
- 3.- Halaber, eskabideak egiteko Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen 30/1992 Legearen 38.4. artikuluan aurreikusten diren bulegoak ere erabili ahal izango dira. Baldin eta ikastetxeek euren eskabidea posta-bulegoren batean aurkeztea hautatzen badute, gutun irekian aurkeztuko dute, eskaera-orria ziurtatu aurretik postetxeko funtzionarioak eguna eta zigilua jar diezazkion. Ikastetxeen erregistroak ez dira sartuko arestion aipatu den Legearen 38.4. artikuluan zerrendatzen diren bulegoen barruan.
- 4.- Eskabideak aztertu egingo dira, eskatzen diren beharkizunak betetzen dituen ala ez egiaztatzeko; beharkizunok bete ezean, agindeia egingo zaio interesatuari, hobena ongitu dezan edo manuzko diren agiriak aurkez ditzan. Halaber, jakinaraziko zaio ezen, horrela egin ezean, eskaerari uko egiten diola ulertuko duela Administrazioak, eta ebazpena eman ondorik, artxibatu egingo dela; ebazpen hori Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen 30/1992 Legearen, urtarrilaren 13ko 4/199 Legeak aldarazi duenaren, 42.1. artikuluan xedatzen denaren arabera emango da.

Seigarrena.- Zirkularra ebazteko prozesua

Proiektuak baloratu eta diru-zuzkiduraren zenbatekoak esleitzeko ondoan adierazten diren lehenespen eta irizpide hauek hartuko ditu kontuan:

- 1.- I. Modulua eskatzen duten ikastetxeen kasuan:

- Agente guztien parte hartze maila proiektuan: **puntu 1**
 - Ikastetxeko irakasle guztiak, 0,75 puntu
 - Komunitateko agenteen partaidetza (senideak, gizarte-zerbitzuak, elkarteak...), 0,25 puntu.
- Aurreko urteetan ikastetxeak Hezkuntza Berriztatzeko Proiektuak egin izana, ondoko gaiak jorratuz: balore-hezkuntza, bakerako eta bizikidetzarako hezkuntza, elkartasuna eta tolerantzia: **puntu 1**
- Proiektuaren garapenean zenbait hizkuntza integratzea: **puntu 1**
- Curriculumaren arloetan zeharkako gaiak sartzea: **puntu 1**
- Ikasleei irakasteko lan-metodo berriak eta material berriak prestatzea: **puntu 1**



2.- II. Modulua eskatzen duten ikastetxeen kasuan

- Ikas Komunitateak deritzon proiektuko oinarriko elementuei buruzko jardueren edo berrikuntzen proposatzea: **3 puntu**
 - Familien parte hartze eta prestakuntza: **puntu 1**
 - Talde interaktiboak: **puntu 1**
 - Komunitate-ikuspegitiko elkarbizitza: **puntu 1**
- Prestakuntza jardueren proposatzea: **puntu 1**
- Agente guztien parte hartze maila: **puntu 1**
- Ebaluazio eta jarraipen sistema: **puntu 1**
- Ikastetxeek aurkeztutako aurrekontua: **puntu 1**

3.- Araba eta Gipuzkoako DBHko edo Lhko ikastetxeek aurkeztutako proiektuak lehenetsunez onetsiko dira, baldin gutxienezko beharkizunak betetzen badituzte.

Zazpigarrena.- Hautapen Batzordea

Onetsi beharreko proiektuak zein diren eta horietako bakoitzari zer diru-zuzkidura eman behar zaion erabakiko du Hautapen eta Jarraipen Batzordeak. Ondoko hauek osatuko dute batzorde hori:

Lehendakaria: - Hezkuntza Berriztatzeko zuzendaria, edo beronen ordezkaria.

Mahaikideak:

- Pedagogia Berriztapenerako lurraldeburuak, edo berauen ordezkariak.
- Pedagogia Berriztapenerako zerbitzburua.
- Ikas Komunitateak deritzon proiektuko arduraduna EAEn.
- Berritzeguneetako Aniztasun-arduradun bi.
- Hezkuntza Berriztatzeko Zuzendaritzako teknikari bat.

2.- Zirkularra behin betiko ebatzi baino lehen, Hezkuntza Berriztatzeko zuzendariak, Ebaluazio Batzordearen burua denez, aurkeztu diren proiektuetan egin beharrekotzat jotzen dituen aldarazpen guztiak egiteko proposatu ahal izango du. Diru-zuzkiduraren emakida proposatzen diren aldarazpenak betetzearen eta onartzearen baldintzapean egongo da.

Zortzigarrena.- Eskabideak ukatzeko kariak:

- 1) Eskabidea zirkular honetan ezarri den epetik kanpo aurkeztea.
- 2) Zirkular honetan ezarri diren beharkizunak ez betetzea.
- 3) Hautapen eta Jarraipen Batzordearen ezezko txostena, behar bezala arrazoitua.
- 4) Aurrekontu-partidetako dirua agortzea.

Bederatzigarrena.- Diru-zuzkiduraren emakida

1.- Herri ikastetxeek, zeinen *Ikas Komunitateak* deritzen proiektuak hautatzen baitira, Hautapen Batzordeak esleitutako diru-zuzkidurak jasoko dituzte, gehienez, **1.500 euroko** baldin proiektuaren I. modulua garatzeko esku hartzen duten herri ikastetxeak badira, eta **6.000 eurokoa**, baldin proiektuaren II. modulua garatzen duten herri ikastetxeak badira.



2.- Ematen den diru-zuzkidura eta xede bera duten beste deialdi batzuen bidez eskura daitezkeen beste zuzkidura batzuk bateraezinak izango dira.

3.- Diru-zuzkidurak jarraian azaltzen den moduan ordainduko zaizkie ikastetxe onuradunei, banaketa honen arabera alegia:

a) Ikastetxe onuradun bakoitzari dagokion guztirako zenbatekoaren %80a, proiektua onetsita dagoela jakinarazten den egunetik zenbatu beharreko bi hilabetetik beherako epealdiaren barruan.

b) Gainerakoa, proiektua burutua dagoela egiaztatzen duen oroitidazkia jaso ondorik.

Hamargarrena.- Ordu murrizketak

Hautapen eta Jarraipen Batzordearen proposamenez, II. Moduluko proiektu bakoitzaren koordinatzaileak bere ordu lektiboen erdiko murrizketa, gehienez, izan dezake; horretarako kontuan hartuko dira proiektuaren konplexutasuna, aurreikusitako betebeharrak eta ekintzak, eta partaideen arloak (ikasle, irakasle, famili eta gizarteko agenteak).

Hamaikagarrena.- Onuradunen betebeharrak

1.- Jaso den zuzkidura eta diru-laguntza behar den moduan inbertitu dela frogatzea, ondoren adierazten den dokumentazio aurkeztuz:

- Proiektuaren garapena deskribatzen duen oroitidazkia, VII. Eranskinean adierazten diren puntuei jarraiki.
- Ikastetxearen Zuzendaritzaren ziurtagiria, zeinetan adieraziko baita bete egin dela proiektua burutzeko zuzkidura ematea eragin zuen xedea (VIII. Eranskina).
- Ikastetxearen Zuzendaritzaren ziurtagiria, proiektuaren garapenean esku hartu duten irakasleen izen-deiturak, NAN zenbakia, sexua eta beraien partaidetzaren portzentajeak erasotzen dituenak.

2.- Oroitidazki hori aurkezteko mugaeguna 2008ko ekainaren 15a izango da.

Hamabigarrena.- Jarraipena eta ebaluazioa

Ikastetxeek aurkeztu, eta onartutako baldintzen arabera diru-zuzkidura jaso duten Ikas Komunitateen proiektuak behar bezala gauzatuko direla bermatzeko asmoz, Hautapen eta Jarraipen Batzordeak aztertu egingo du proiektuak noraino gauzatu diren, ondokoak oinarritzat hartuta: ikasturtean egindako jarraipena, ikastetxeek bidalitako oroitidazkia, eta beharrezkotzat jotako beste edozein datu edo txosten. Ondoren, txosten orokorra ikasturtearen amaieran. Txosten hori kontuan hartuko da proiektuari hurrengo ikasturteetan ere jarraipena emateko.

Hamahirugarrena.- Partaidetzaren ziurtagiria

1.- Irakasleek proiektuan izan duten partaidetza, proiektuaren aldeko txostena gertatu ondoren, ofizioski ziurtatuko du Hezkuntza Berriztatzeko Zuzendaritzak.

2.- **Ikas Komunitateak** deritzen Hezkuntza Berriztatzeko Proiektuen ziurtagiriak %80tik gorako partaidetza izan duten irakasleei emango zaie.

3.- Irakasle berari ikasturte berean inola ere ez zaio emango 105 orduetik gorako ziurtagiririk Hezkuntza Berriztatzeko Proiekturen bati dagokionean, dela ingurumenari buruz, dela



osasun sustapenari edo bestelako gaiei buruz; ildo honi jarraiki, ez da ziurtagiririk emango deialdi honen edo beste deialdi batzuen bidez burutzen diren prestakuntzako jardueraz.

Vitoria-Gasteizen, 2007ko ekainaren 1ean
HEZKUNTZA BERRIZTATZEKO ZUZENDARIA

Izpta. Juan José Agirrezabala Mantxola



I. ERANSKINA
IKAS KOMUNITATEAK DERITZON PROIEKTURAKO ESKABIDEA

IKASTETXEAREN KODEA

--	--	--	--	--	--

..... jaunak/andreak, (NAN-zk.:), ikastetxearen zuzendaria denez (Ikastetxearen datuak: Herria:; kalea/plaza:; posta kodea:; telefonoa:; faxa:; e-maila:), ondokoa

ADIERAZTEN DU:

Ezagutzen duela “*Ikas Komunitateak*” izeneko Hezkuntza Berriztatzeko Proiektuei buruzko zirkularrean adierazi den guztia, eta ondokoa hasi nahi duela:

I. modulua

II. modulua

Zirkular honetan eskatzen diren beharkizunak betetzen direla egiaztatzeko behar den dokumentazioaren jatorrizko agiria eta horren aldakia erantsi dira:

I. MODULUA

Eskabidea (I. eranskina)

Garatuko ikastaroan edo Sentsibilizazio Aldian esku hartzearen ziurtagirien fotokopiak

Zuzendariaren ziurtagiria (III. eranskina).

Klaustroaren akta (IV. eranskina)

Ordezkaritza-Organoren Gorenaren akta (V. eranskina).

Zuzendariaren zinpeko aitortpena (VI. eranskina)

II. MODULUA

Eskabidea (I. eranskina)

Proiektuaren laburpena (II. eranskina)

Zuzendariaren ziurtagiria (III. eranskina)

Klaustroaren akta (IV. eranskina)

Ordezkaritza-Organoren Gorenaren akta (V. eranskina)

Zuzendariaren zinpeko aitortpena (VI. eranskina)

ESKATZEN DU: Aurkeztu den proiektua onets dakiola.

.....(e)n, 2007ko ekainaren(e)an

<p>(sinadura eta zigilua)</p>

HEZKUNTZA BERRIZTATZEKO ZUZENDARIA



II. ERANSKINA

IKAS KOMUNITATEAK

HEZKUNTZA BERRIZTATZEKO PROIEKTUAREN DESKRIPZIOA/LABURPENA (II. Modulua)

HEZKUNTZA BERRIZTATZEKO PROIEKTUAK: *IKAS KOMUNITATEAK*

1.- Bidezkozea eta xedeak.

1.1.- Ikastetxeko testuinguruan kokatzea.

1.2.- Proiektuaren edukien eskema, burutzapenerako faseak sartuz.

2.- 2007-2008. ikasturtean gelan eta ikastetxean aurreikusten diren berrikuntzak eta jarduerak.

3.- 2007-2008. ikasturtean aurreikusten diren prestakuntza jarduerak.

4.- Metodologia eta antolaketa

4.1.-Proiektuaren aplikazioan esku hartzen duten irakasleen osaketa eta antolaketa

4.2.-Proiektua aplikatzen zaien ikasleak (ikasgelak, ikasmilak, urratsak,...)

4.3.- Lan-metodologia: koordinazioa, atazak banatzea, denborak ...

4.4.-Aurreikusi den jarraipen eta ebaluazio sistema: adierazkariak, faseak, momentuak.

4.5.- Giza baliabideak eta bitarteko material eta didaktikoak.

4.5.1.-Norberaren baliabideak.

4.5.2.2.- Kanpoko baliabideak.

5.- Proiektua burutzeko beharrezkotzat jotzen den aparteko aurrekontua (kontzeptuen arabera xehekatua)



III. ERANSKINA

ZUZENDARIAREN ZIURTAGIRIA

..... jaunak/andereak,
..... ikastetxearen zuzendari legez, ondokoa

ZIURTATZEN DU:

- a) (I. modulua) Proiektuan esku hartuko duten irakasleen kopuruakoa da;
LZ irakaslek osatzen dute.
- b) (II. modulua) Ikastetxea IKAS KOMUNITATEAK izeneko proiektua
..... ikasturtean hasi zuen.

Zuzendaria
(Izena eta sinadura)

.....(e)n, 2007ko ekainaren(e)an



IV. ERANSKINA

KLAUSTROAREN AKTA

.....(e)ko irakasleen klaustroak,
ondokoa adierazten du:

Klaustroa aparteko bilkuran batzartu da gaur, 2007koaren(e)an, jardunbiderako ezarririk dauden baldintzak betetzen dituelarik, eta 2007rako IKAS KOMUNITATEAK izeneko Berriztapen Proiektuei buruzko zirkularrean adierazten diren beharkizunak oinarri harturik, adierazten du ezen ezagutzen duela aurkeztu den proiektua, bai eta hura osatzen duten jarduera guztiak, eta partaide gisa dagozkion eragin guztiak bere gain hartzen dituela. Halaber, bere gain hartzen ditu proiektuak ikastetxearen barne antolaketan izan ditzakeen eragin guztiak, eta (II. modulua eskatzen bada) ikastetxearen konpromisoa, proiektuaren EAEko aholkularitza-taldearekin koordinazioa egingo duela 2007-2008 ikasturtean, proiektua burutu bitartean.

.....(e)n, 2007ko ekainaren(e)an.

KLAUSTROAREN LEHENDAKARIA

(sinadura eta zigilua)



V. ERANSKINA

ORDEZKARITZA-ORGANO GORENAREN AKTA

IKAS KOMUNITATEAK berriztapen proiektua

..... ren Ordezkaritza-Organoren Gorenaren
 gaur bildu da, bilkura arruntan, 2007koaren(e)an,
etan (ordua); ondokoak bertaratu dira: gurasoen ordezkaritzan,

 irakasleen ordezkaritzan,

 ikasleen ordezkaritzan,

 eta irakasle ez diren langileen ordezkaritzan,

 Batzarburua zuzendari jauna/andrea izan da.
 Organo honek, IKAS KOMUNITATEAK deritzen Berriztapen Proiektuei buruzko
 zirkularrean azaltzen diren beharkizunak betez, adierazi den proiektua burutzeko beharrezko
 diren neurriak bideratzeko konpromisoa hartzen du, eta urteko planean sartuko du, baldin eta
 proiektu hori onesten bada.

.....,(e)n 2007ko ekainaren(e)an

ORDEZKARITZA-ORGANO GORENAREN LEHENDAKARIA

(sinadura eta zigilua)

**VI. ERANSKINA****ZINPEKO AITORPENA**

..... jaunak/andereak
..... ikastetxearen
zuzendaria denez,

ZINPEKO AITORPEN HAU EGITEN DU:

- a) Ikastetxeak ez duela jaso xede bera duen Hezkuntza Sailaren beste deialdi mota bati dagokion diru-zuzkidurarik
- b) Ikastetxea ez dagoela Euskal Autonomia Erkidegoko Herriogasuntza Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen testu bateratuaren 50. artikuluko 5. paragrafoak, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legeak aldatuak, ezarritako arrazoiren baten eraginpean..

.....(e)n, 2007ko ekainaren(e)an

Zuzendaria
(Izena eta sinadura)



VII. ERANSKINA

PROIEKTUARI DAGOKION URTEKO OROITIDAZKIA

- 1.- Proiektua landu den testuinguruaren ezaugarri orokorrak eta ezaugarri bereziak.
- 2.- Proiektuaren helburuen lorpen-maila:
 - Hasieran proposatu direnak
 - Proiektua bukatzean erdietsi direnak
- 3.- Proiektuaren abiarazte eta garapenean izan diren aldaketak, ondoko arlo hauei dagokienez:
 - Helburuak
 - Metodologia
 - Antolaketa
 - Egutegia
- 4.- Proiektuan zehar erabili den ebaluazio-prozesuaren laburpena.
- 5.- Ondorioak:
 - Proiektuaren lorpenak
 - Ikastetxean izan duen eragina
- 6.- Esku hartu duten irakasleen zerrenda (ondoko hauek ere zehaztu: izen-deiturak, NAN zk., partaide hutsa izan den edo jarduera koordinatzeko ardura izan duen, eta irakasle bakoitzaren partaidetza-maila.
- 7.- Prestatu diren materialak (halakorik izatekotan)

**VIII. ERANSKINA****ZUZKIDURA BIDEZKOTZEKO ZIURTAGIRIA**

.....jaunak,
.....n dagoen
.....ren zuzendariak, ondokoa

ZIURTATZEN DU:

IKAS KOMUNITATEAK deritzon Berriztapen Proiekturako eman den diru-zuzkidura proiektu horrek ikastetxean eragin dituen gastuak ordaintzeko erabili da.

Ziurtagiri hau eman dut proiektuari dagokion urteko oroitidazkian sartzeko eta Hezkuntza Berriztatze Zuzendaritzari aurkezteko,
.....koaren(e)an.